

Juan Agoues Zubeldia

*Zarautz,
Gipuzkoa
(1927-2013)*

Aurkibidea

Biografia



Zarauzko plazan jaio zen, aitonarena zen etxean. Bera txikia zela gurasoak Santa Marina kalera aldatu ziren. Aita ebanista zen, eta gerra garaian karrozeria sortu zuen. Familiako beste zenbait kidek bezala, berak ere bertan egin izan du lan. Arrantza eta itsasoa ere asko gustatzen zaizkio eta txipiroitarako zaletasun handia izan du.

Zintak

ZAR-029

- **Proiektua:** Zarautz Hizketan - Zarauzko euskara eta ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Muniozguren, Fernando
- **Data:** 2005-05-11
- **Iraupena:** 80 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Transkribatzailea(k):** Zabaleta Zuloaga, Miren

ZAR-039

- **Proiektua:** Zarautz Hizketan - Zarauzko euskara eta ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2005-08-26
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Sarasua Aranberri, Asier
- **Transkribatzailea(k):** Zabaleta Zuloaga, Miren

ZAR-044

- **Proiektua:** Zarautz Hizketan - Zarauzko euskara eta ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Muniozguren, Fernando - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Data:** 2005-12-21
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

Pasarteak

1. Jatorria; biografia

- **Erref:** ZAR-029/001
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Juan Agoues 1927an jaio zen Zarauzko plazan. Plazako etxea. bere aitonarena zen. Bera txikia zela gurasoak Sta Marina kalera aldatu ziren.

2. Agoues abizena eta "Lukas" gaitzizena

- **Erref:** ZAR-029/002
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:01:26. **Bukatu:** 00:04:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Agoues abizenaren jatorria. Bere aitona frantsesa zen, arrazoiren batengatik honantz etorria. Amona San Pelaioiko baserritarra zen. Nola ezagutu ziren. Amaren aitari "Lukas" deitzen zioten eta berak ere izen hori jaso du.

3. Iñurritza auzoa

- **Erref:** ZAR-029/003
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 00:04:17. **Bukatu:** 00:07:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Amona San Pelaioiko Sagasti baserrikoa zen. Baserria elizaren ondo-ondoan zegoen. Han inguruan "putzabera" (ura ateratzeko putzua) bat ere bazegoen. Iñurritza auzoaren eta izenaren inguruko kontuak.

4. Ebanistek sortutako karrozeria

- **Erref:** ZAR-029/004
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:07:15. **Bukatu:** 00:09:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:

Bere aita ebanista zen, eta 39an karrozeria sortu zuen beste ebanista batekin batera. Oso kotxe gutxi zegoen garai hartan. Orduko kotxeen armazioa egurrezkoa izaten zen eta egurrearekin lan egiten zuten.

5. Familiko giroa umetan

- **Erref:** ZAR-029/005
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:09:38. **Bukatu:** 00:10:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

14 senide izan arren, 11 bizi izan ziren. Juan bera zen zaharrena eta hermanotan 3 urte egin ondoren, 12 urterkin hasi zen lanean aitaren tailerrean.

6. Familiko giroa umetan

- **Erref:** ZAR-029/006
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:10:40. **Bukatu:** 00:12:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Senide asko zirenez, ez ziren asko joan eskolara. Asko izan arren, gehien egon zirenean 7-8 senide egongo ziren elkarrekin bizitzen. Mahaian ez ziren kabitzen eta arrebak karboneraren gainean jaten zuen. Umetan hironaka ere lo egiten zuten inoiz.

7. San Eloi, karrozeroen eguna

- **Erref:** ZAR-029/007
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:12:59. **Bukatu:** 00:14:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

<p>Abenduaren 1ean San Eloi eguna ospatzen zuten, karrozeroen eguna. Gaztainak edo olagarro-zopa izaten zuten.</p>

8. Karrozeroen soldata; bezeroekin hartu-eman

- **Erref:** ZAR-029/008
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:14:59. **Bukatu:** 00:16:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Ekonomia eta industria » Lantegiak
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

<p>Karrozeroen soldatak: aitak 11 pezeta eta erdi irabazten zuen eguneko; berak 55ean 300 pezeta astean. Bezeroekin tratua nola izaten zen. Fakturak egiten zituzten, baina aurrekonturik ez 50 ingurura arte, kamioien kabinak egiten hasi arte.</p>

9. Zarauzko lehenengo kotxeak

- **Erref:** ZAR-029/009
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:16:54. **Bukatu:** 00:18:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak

Laburpena:

Kotxeen jabeak nortzuk ziren: don Evaristo medikua, taxistak.. Bakoitzaren kotxea nolakoa zen; markak.

10. Tailerreko lana; erremintak

- **Erref:** ZAR-029/010
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:18:15. **Bukatu:** 00:19:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Arotzak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

<p>Hasierako lana tailerrean eskulana zen. Zerrak, mailuak.. erabiltzen zituzten. Egurra osabaren tailerrean prestatzen zuten.</p>

11. Gau-eskolak eta eskola profesionalaren sorrera

- **Erref:** ZAR-029/011
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:19:34. **Bukatu:** 00:21:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:

Lana eta eskola bateratzearen gau-eskoletan ibili zen. 1944 inguruan eskola profesionala sortu zen fraideetan. Ebanisteria, tailaketa eta mekanika irakasten zuten bertan. Gau-eskoletan zer ikasten zuen.

12. Lana, ikasketak eta entretenimendua: arrantza

- **Erref:** ZAR-029/012
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:21:58. **Bukatu:** 00:24:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

<p>Laneko ordutegia. Arratsaldean 6ak inguruan atera eta gau-eskolara joaten zen. Igandetan arrantzara joaten ziren. Neskatan ez zuten egiten bekatua zelako. Garai txarrean jaiotakoa dela dio. Gaztetan ez zuen kirolerako zaletasun handirik.</p>

13. "Juventud parroquiana" zer zen eta ze ekintza antolatzen zituen

- **Erref:** ZAR-029/013
- **Iraupena:** 0:03:23. **Hasi:** 00:24:48. **Bukatu:** 00:28:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Taberna giroa » Jokoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

<p>"Juventud parroquiana" parrokiako mutilen taldeari deitzen zitzaion. Lagunartean egoteko gune bat zen eta bilarrean edo kartetan aritzen ziren bertan. Kirolen inguruko frogak ere antolatzen zituzten.</p>

14. Aitak egindako txalupa

- **Erref:** ZAR-029/014
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:28:11. **Bukatu:** 00:30:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

Aitak egindako txaluparekin ibiltzen zen. Ze materialekin egin zuen txalupa. Hasieran arraunarekin ibili zen urte askoan.

Transkripzioa

- Bueno, pasa gaitezen arrantza kontuetara. Arrantza, ya, mutikotatik txalupakin, ta. Nundik zeneukan txalupa?
- Nun?
- Nongoa, nundikan lortutakoa txalupa?
- Ba... Ibili nuna urte askuan aitak iña, neure aitak iña. Oso mañosua huan lanian ta. Eta txalupa beak in zian taillarrian. Txoko batian, neguan.
- Ze materialekin, edo?
- Ba, [...], ez dakit, ba. Txalupak, txalupak izaten zian, ba, lehendabizi, ba, plantilla bat ta geo kostillak alkatzizkuak, ta geo pino nortia, pino nortia. Ta txalupa polita in zian, zea, este, nola esango nuke, ba? Txolo samarra. Horrek esan nahi dik, este, ontziyan balantza, asiento, uretan, asiento txikikua. Txalupa jun behar izaten huan hola, zean...
- Txolua?
- ...ohitu, ta. Bai, ohitu, ta, han-han txalupan sartzen balin bahintzan [...] mouz heltzian, putzua. Bai, baiña, aizu...
- Ta arraunakin ala motorrakin?
- Arraunakin urte askuan, arraunakin. Nik motorra, guk motorra... Nik berrogeita hamabost urte arte..., gehio! Igual hirurogei urte arte ez nitxakan, zea, motorrikan. Geo, geo ezkondu ta, ezkondu ta behalaxe, ba, arrantzan kontu hoiek pixkat laga in nitun. Bai, ba, esaten diyat, arrantza netzako izan dek gauzik earrena. Baiña, biarren zea, biarren... taillarra euki det, ta taillarra eamaten nahiko lana izan det, e. Ta geo, geo, nola esaten da, "primero la obligación, después la devoción", esaten dana, ezta? Ba...

15. Txipiroien arrantza nagusi Zarautzen

- **Erref:** ZAR-029/015
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:30:09. **Bukatu:** 00:32:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

Moilan izaten zuen bere txalupa. Ia 60 txaluparaino egon ohi ziren. Familia askori laguntzen zion arrantzak udaran, batez ere txipiroiekin. Ze arrain-mota arrantzatzen zen.

Transkripzioa

- Nun eukitzen zendun txalupa?
- E?
- Nun eukitzen zendun txalupa?
- Ba, uda... iya urte guztiya moillan.
- Moillan.
- Baiña geo neguan, zeara...
- Asko eoten al zian?
- E?
- Asko eoten al zian?
- Txalupak? Eon izandu dia berroeita hemezortzi 're, txalupa.
- Oain baiño askozeh gehio.
- E?
- Oain baiño askozeh gehio.
- Oan baiño lau aldiz gehio, o gehio. Baiña orduan txalupakin Zarautzan famili asko jazten zan, arrantza ondo ateatzen zan, arrantza ona iten zan. Txipiroiak beti diru iten zun. Eta, bueno, hoiek..., nola esaten da? Ba, ba, ba, [...] batzuk izaten dia onak, beste batzuk txar-txarrak, ez, tartekua [...] baezu, ya está. Ba, baiña udaran, udaran Zarautzan asko, jende asko jazten zan zeatikan, este..., arrantzatikan, txipiroitatik orduan. Bai, ba.
- Ze, ze arrain...
- Txipiroia.
- Beti, txibiya beti?
- Udaberriyan txitxarrua. Luego, igandetan ta, arrai-txikitan, kabrak eta hola. Baiña, hamen printzipalena izan da, este...
- Txibiya.
- Txipiroia, bai, txibiya.
- Eta, bestela, lupiyak ta holakoikan?
- Bai, batzuek kasan ta bai, baiña ez, hori, hori urriya izan da, urriya izan da. Batek egokitzen du, batei egokitzen du lupi bat harrapatzia, ta ya kontatu iten du, kontatzeko [...]. Baiña bestela, ba, normalena hamen txipiroita izan du. Zarautzan udaran eoten zan iya hondartza dana estali ontziyakin, ontzi txikiya, gu bezelakua, zean. Nik oain, aspaldi ez naiz jun, baiña, uain azkeneko urtetan, uain bada urte batzuk laga niyola, baiña, udaran, moilla, zea, hondartza azaldu ta ikusten baituzu hogei bat ontzi, txalupak, Zarauzko hondartzan, emozionatu ta dana iten da bat. Nolako gauza ederra dan hori, bai, ba. Ta gu eoten giñan, ba, igual esaten dizut, e, igual, igual, iya hirurogei ontzi eoten zian. Ta igual berrogei o gehio hantxe, danak alkarren koska pixkat jarrita. Hura polita izaten zan.

16. Arrantzarako orduak eta moilako giroa

- **Erref:** ZAR-029/016
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:32:22. **Bukatu:** 00:34:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

Ze ordutan joaten ziren arrantzara: goizean eguna argitzerako itsasoan egoten ziren eta gauean ilundu arte. Bueltan etorritakoan saltsa jartzen zuten moilan gazteek.

Transkripzioa

- Ta ni goatzen naiz, este, hamen adoración nocturna-kuak meza goizaldian lautan izaten zan, ta hango irteeran gu han itsasoa, gu itsasoa presaka, ta. Zea, egoistak o anbiziosuak deitu izandu ziguen ta, ez zan anbiziyoik batere. Hura gustatzen, hura, [...].
- Noiz juten ziñaten? Ze ordutan, edo?
- Hara illunpian, illunpian. Batzuek euna zabaldu baiña bi ordu lehenuo igual. Baiña eguna zabaltzeako, han. Juten ez baziñan, ta jun ta harrapatu, jun ta hasten baziñan seituan harrapatzen, damu bat eukitzen zendun, lehenuo ez juna. Hortako ez ba jakin 'e, baiña, arrantzako kontuk hola izaten dia.
- Ta illuntzean, ta?
- Illuntzetan, ba, illundu are, illundu arte. Oain ez, oain beste zea batzuk dituk. Oain arratsalden zazpitan aspertu in al da? Itxea, entenditzen? Orduan ez. Orduan danak illundu arte, alkar jotzen ontziyak eta, ta. Ta geo moilla etorri ta moillan, aizu, danak batian, sarreran ta. Gu gaztiak eta.... Beti izaten zan erokeien bat. Nola izaten da? O zaata, o. O batek harrapatu zulako, bestiak ez zulako, batei hori gertatu zakolako.
- Diskuziyua?
- Bai, diskuziyuak ez, baiña...
- Xextra, xextra pixka bat?
- Bai, zea pixkat, ambiente pixkat. Ta gu gaztiak giñala, ba, bero in baldin bazun, ba, putzua salto, ta baiñatu, ta. Beste edadekoik baldin bazan adarra jo. Hala izaten da! Ez bagiñan gu 're santuak! Bakizu, oainguak 'e ez ta, lehengokuak 'e ez, ta...

17. Arrantzara joanda pasatako estutasuna

- **Erref:** ZAR-029/017
- **Iraupena:** 0:03:34. **Hasi:** 00:34:00. **Bukatu:** 00:37:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

Behin, anaiarekin arrantzara joanda, estutasuna pasatu zuten. Haize zakarra atera zen; eta, gasolio gutxi zutenez, laguntza eskatu behar izan zuten.

18. Arrantzaleen gorabeherak

- **Erref:** ZAR-029/018
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:37:34. **Bukatu:** 00:38:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasoko arriskuak

Laburpena:

Arrantzaleen inguruko gertakizunak. Zarauzko moillak sarrera txarra du eta batzuetan ontziak irauli egiten ziren.

Transkripzioa

- Bestela, gertaerarik eta hola ezautu dezu zure garaian? Izanda holako gertaera...
- Ez, ez, ez. Ba, moillan bai, moillan gu izandu ditut, ba, gizonak ontziya bueltatu ta, zean moillan azpira sartzen 'e bai. Ta, beste batian, hori bitan o hirutan gertatu zat, zea, ontziya, moillak sarrera txarra du, Zarauzko moillak baja marrian, ta itsaso pixkat danian. Ta, guk ikasi gendun, baiña dexkuiatu iten zian, ta. Eta, ba, este... Ezautu nun, hil zan, Rikardo. Eta hura ontziya bolkatu ziyon, ta, ez zakiyan igeriyan. Eta moillan azpiyan hola zulua zan, ta han azpira sartuta eon zan hura. Ta geo, jainkuak hala nahi zulako, erten zun kanpoa. Heldu ziyoen, kanpoa, bai. Ta holako, bai, urtian zihar eokitu izandu dizkigu ikustia.

19. Arrantzaren inguruko lexikoa

- **Erref:** ZAR-029/019
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:38:38. **Bukatu:** 00:41:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

Arrantzarako tresnak. "Koaña" erabiltzen zen txipiroitarako. Amutarako zer erabiltzen zuten: izkirak, antxoa eskabetxatuak, loiorra (zizarea)..

Transkripzioa

- Ze tresna erabiltzen zenuten orduan arrantzuan? Ze aparejo edo ze tresna, edo...
- Zea bat, aparejo zea txiki bat, eta, bakizu, nola dan, koaiña zer dan, arrantzako koaiña? Peruna, jostorratz zea batzuekin, hariyakin bueltatua, koaiña. Hura txipiroitako.
- Ta besteikan?
- Eta txitxarroako, ba, lehen, ba, deitzen zan beste bat, hola kutxarila bat, zea, kromatua, hiru amoko zeakin, degoilla deitzen zienana. Hoiek uan, hoiek 'e uain milla klasetakuak dia, lehen. Beste batzuk berriz, illia, illia. Amua, amua, ba, ille pixkat, zea, ille pixkatekin tapatuta. Ta hura arraiak heltzeko izaten da.
- Ta bestela, sare txikikan, ta holako...
- Ez, ez. Hoiek, hoiek, motoko.... motorrak eta bai, zean, baiño geuk, hamengo ontzi txiki huakin, ezer. Hoiekin ez dao sareik eta ibiltzeik.
- Ta karnata mouan?
- Garnata mouan? Ba, ba, este.... Igandetana ta, e, hori astian ez gendun iten, [...]. Igandetana, este, txintxola deitzen ziogun zea bat izaten zan, ba, perun lori hola, astun samar batekin, holako alanbre bat. Ta alanbre bakoitzan zintzilika, ba, metro bateko beste puntera bat. Han bi amo, ta

beste aldian beste bi amo. Ta, perunakin, zein. Ta han, ba, antxoia eskabetxatua, ixkira onena, ixkira bakizu zer dan? Zea, quisquilla, kixkilla txiki hori, arraldian ta eoten da kixkilla txiki hori, ixkira, hura garnata bezela, ixkira ona da. Loiorra, loiorra bakizu zer dan? Beste hitz batian, txitxaria, txitxaria, lokatzetan eoten dan txitxare zein, mehe, mehe gorrixka hori.

- Nola esan dezu izena? Loiarra?

- Loiorra. Loiorra, guk hamen deitzen gendun, loiorra, zein, zein. Atsuak hamen deitzen diyo aizarra, aizarra.

- Zeinek deitzen diyo horrela?

- Hemen, guk, "noa hua?", ta, "aizarreta, aizarreta". Ta juten giñan orduan ba, o, han moillan sarreran daben arroka txiki hoien azpiyan, udaran ez [...] behin 'e eokitu ikustia han launak nola jarduten dian hondar azpitik ateatzen txitxare hoiek ateatzeko? Aizarra hori da. Aizarra. Gu juten giñan, ba, gehioatikan ba, zeatikan, ba, lñurritzako zein, erriyuan sarreran daon lokatz zikiñ hortan. Han gehio eoten zan, aizarra deitzen diyo. O, loillorra. Hori, beste leku batian beste gauza bat deituko diyo.

20. Aitak lanpernatan egiten zuen

- **Erref:** ZAR-029/020
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:41:32. **Bukatu:** 00:42:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

Bere aita asko aritzen zen lanpernatan, baina hotz handia pasatzen zuen. Lanpernarik onenak mediku edo apaizentzat izaten ziren.

Transkripzioa

- Ta arraldean ez al zenuten arraldeko zeak...

- E?

- Arraldean ez zenuten arrantzuan iten, arraldean? Beti uretan? Uretan barruan, itsasuan?

- A, bai! Lehorretikan ez naiz izan afizionatua. Hasi nitzan aitakin, baiña, berehalaxen.... Gure aita bai. Nere aitak arrantza onak ekartzen zitun lehorretikan kaiñaberakin. Earra. Arrai earrikan ekarri du aitak, ekarri zun. Baiña, neguan ta juten zan, ta hotz asko pasata. Bere soziyuak etortzen zian, esaten zian, "ikusiko dek, aurki dek hire aita moillan akaatuta, hilda topatuko diye". Geo etortzen zan hotzak, bihatzak multu eziñikan. Sugurra luzia zun, ta jata, gorri-gorri inda hotzak. Hala etortzen zan. Ta hala ta guztiz ez, ba.

- Lanpernatan ta ez dezu in, ordun?

- Hura bai.

- Hura bai.

- Nere aita hartan 'e bai. San Pelaio ingurutan [...] gizagaixua, zein iten zuna, ta lanpernetan 'e jata atzaparrak eta hankak eta, kopeta 're bai, danak urratuta etortzen zan hura. Geo zer dek? Eta, lanpernaik onenak meikuantzat, apaizantzat eta holako tipo tunante guztiyantzat. Gure etxeako, txikiyena. Itxeako txikiyena. Onenak danak erreale besteei, e?! Bai, ba. Hala izan deu bizimoua. Bai.

21. Itsasoa erreferentziak nola hartzen zituzten

- **Erref:** ZAR-029/021
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:42:56. **Bukatu:** 00:44:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

Zarautz ingurua oso aberatsa zen lehenago txipiroitarako. Zein puntutan arrantzatzen zuten kalkulatzeko baserri eta txaletekin hartzen zuten erreferentzia.

Transkripzioa

- Ze zona zan ona arrantzuan iteko?
- E?
- Ze zona? Ze gunea?
- Hemen? Ba, este... Zarautza zea, txipiroia harrapatzeko Zarautza aberatsa izan huan orduan. Oain ez, oain ordia, etortzen dituk aurki, zea, garnata itea, zea, atunetako ta zimarroitako ta, atuna itea. Ta hoiek hondartza dana garbitzen due. Hoiek ez due ezer lagatzen. Lehenoz ez zan holako zeaikan.
- Ta puntu berdiñea juten ziñaten beti arrantzura? Puntu berdiñera, ala aldatu?
- Aldatu? Ez. Ibili batea ta o bestea ta, hamen gelditu, ta ezer ez. Geo horrea zean ta. Ta, "atzo hemen, hemen jo nixkiyan", da!, markak hartu. Markak hartzen zendun, ba, hamen lehenoz dana txaleta zan, ta, ba, [Corbeseneko] txaleta, halako han goian dan basarri harekin, o zeakin, eo. Itsasuak hala esaten digu. Oain 'e bai, zea. Oain 'e arrai-txikita ta juten dianak, moillarri gaiñea, ta, hoiek danak zeakin, este, este... Basarriyakin, zea iten dia. Geo, geo, ba, Getariako torriak, osea, elizan torriak eta Oriyoko elizan torria, ta Aiako elizak, hoiek hoge milla marka eukiko ditue, zea, hoge milla marka. Hola jun ta, oaintxe han gaituk, ba hor gaituk, ba hor gaituk, ba... Bota fondua hor gelditzeko. Ta hemen txipiroitan, ba, esaten dizut. Bezperan, ta, askotan gezurra 're bai. "Nun hitzan?", ta, "Borgetonian", ta hortako beste aldan, igual. Hori, hori, mariñel tartian normalena izan da.
- Ehiztariak bezela, ordun.
- A, bai! Hori, hori normala.
- Ta perretxikulariak bezela.
- Baita. Bai, bai, bai, hori, zean...
- Gezurra esan behar.
- Gezurra esan behar, bestela hurrengo egunian danak han!

22. Arrantzaleen arteko harremana

- **Erref:** ZAR-029/023
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:45:35. **Bukatu:** 00:48:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Arrantzaleen arteko harremana. Ontzi asko egoten ziren eta sarritan ia elkar jotzeraino hurbiltzen ziren. Getarian anaiari eta bieie gertatu zitzaiena.

23. Arrainen salmenta eta prestaketa

- **Erref:** ZAR-029/024
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:48:06. **Bukatu:** 00:50:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Arraina plazako goiko aldean saltzen zen. Txibiak pezeta batean saltzen ziren. Txipiroiak tintan prestatzen ziren jateko normalean. Bestelako arrainak prejituta jaten ziren.

24. Txalupa moilan edukitzeko kuota

- **Erref:** ZAR-029/025
- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 00:50:00. **Bukatu:** 00:50:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Hasieran ez zuten ordaintzen txalupa moilan edukitzeagatik. Gerora urteko erriala ordaintzen zen.

25. Familiako karrozeria

- **Erref:** ZAR-029/028
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:55:16. **Bukatu:** 00:58:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lantegiak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Hasieran tailer txikia zuten eta kamioiak konpondu behar zituztenean, kanpoan lan egiten zuen. Familiako 5-6 kidek lan egiten zuten bertan. Zarautzen beste karrozeri bat ere bazegoen.

26. Karrozeriko kontuak; bezeroak

- **Erref:** ZAR-029/029
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:58:02. **Bukatu:** 00:59:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lantegiak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Inguruko herrietatik ere etortzen zitzaizkien bezeroak. Orduko kamioiak motzagoak izaten ziren. Bezeroekin harremana.

27. Krisi garaian gasogenoarekin ibiltzen ziren kotxeak

- **Erref:** ZAR-029/032
- **Iraupena:** 0:03:27. **Hasi:** 01:02:18. **Bukatu:** 01:05:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak

Laburpena:

40. urte inguruan krisia egon zen gasolinarekin, eta kotxeak gasogenoarekin ibiltzen ziren. Hasierako kotxeak atzerrikoak ziren, eta ondoren 52. urte inguruan hasi zen Seat-a. Gasogenoa arriskutsua zen, jendea asfixiatuta hiltzen zelako.

28. Kamioi baten prezioa

- **Erref:** ZAR-029/033
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 01:05:45. **Bukatu:** 01:06:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

1955ean bost mila duro inguru balio zituen kamioi batek.

29. Zarauzko lehenengo garraioalariak

- **Erref:** ZAR-029/034
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 01:06:32. **Bukatu:** 01:08:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Zarauzko lehenengotako transportistak Goikoetxeanekoak izan ziren. Zaldiekin

eramandako karrorik ez du ezagutu. Eskuko karroak asko erabiltzen ziren gauzak garraiatzeko.

30. Baserrietan kotxerik ez eta biderik ere ez

- **Erref:** ZAR-029/036
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 01:10:35. **Bukatu:** 01:12:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Baserritarrek ez zuten kotxerik ekarriko 60 urte ingurura arte, biderik ere ez zegoen baserrietara eta. Noiz egin ziren Urdanetarako eta Urtetarako bideak.

31. Neskameen inguruko kontuak

- **Erref:** ZAR-029/038
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 01:14:25. **Bukatu:** 01:15:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Emaztea nola ezagutu zuen: emaztea hirugarren solairuko neskamea zen eta bera laugarrenean bizi zen. Aberatsen neskameei "bugatis" deitzen zieten.

32. Zarauzko hizkera eta inguruko herrietakoa

- **Erref:** ZAR-039/001
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Zarauzko hizkera eta Oriokoa oso antzekoak dira. Getariakoa zertxobait aldatzen da, azentuan eta laburdura batzuetan.

Transkripzioa

- Zarauztik Oriyora, ez daola alderik?
- Ez, ez, ez, holako alde... Nere iritzirako, e, nere iritzirako, Zarauztikan, Oriyotikan Zarautza hixketan, ba, berdintsu samar iten dek. Bai, berdintsu samar zea iten dek, nere iritzirako. Bakar-bakarrikan Oriyotarrak [...] izan, baiña haiek maldiziyuan diye indarra gehio. Mutil jatorrenak dituk, munduan dian mutillik jatorrenak dituk, baiña kaguen diosa behalaxe botatzen diye.
- Zarautzen baiño gehio?
- Bai, bai, bai, bai. Nik ezagutzen dixkiat mutil jator-jator-jatorrak Oriyon, e! Ta, adibidez, konbersaziyuan eozein kontu [taku in], eo zean da, ta,

behalaxe, "E, kaguen dios!"... Holaxe. Alkarri esan, esan, esan izandu dixkiot, "koño, errex botatzen dezue", ta, ba, ba! Ez, ez, hola, ezer esango ez balue bezela.

- Baiña euskera aldetik? Oso antzekoak.

- E? Ba... zeakua, bai...

- Getaikua.

- Getaian 'e... Bai, baiña Getaian pixkat azentua, azentu [...], zea, "ámai", "ámena", "ámena", e! "Zein dator?", "Gure ama" [...]. "Jun ai ámana", e, ba, "ámena". Holako zeak baixkiye, bai, Getaian. "Ta zer dezu?" esan beharrian, ba, "Zertzu?". Getaian uain dao, ez zekit berri-berritan, baiña lehen behintzat, "Zer dezu?" o, "Zer nahi dek?", "Zertzu?" esaten due.

- Dana jan?

- E?

- Dana jan.

- Bai. Ta igual esateko postura, "Zertzu?". Hola esaten due. Gaiñontzian, ba, ez, ez, ez, ez dek zeaikan.

33. Izurdeak, zereak eta ezparloiak

- **Erref:** ZAR-039/003
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:54:35. **Bukatu:** 00:56:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Lehen izurdeak jarraitu egiten ziren, antxoa harrapatzeko. Orain radarrak daude, baina lehen izurdeei segika egiten zen. Klaseak daude: izurdeak, ezparloiak eta zereak. Ezparloiak (Orcinus orca) hondartzan bertan ikusi izan ditu.

Transkripzioa

- Ta hemen, barkuan aurrian sartu ur azpitik ta han erten. Ta geo, aurrexio, hortik sartu ta handik erten. Bandak 'e oso politak izaten dia, izurdiak.

- Eta hemen ikusten dia?

- E?

- Hemen kostan ta ikusten dia?

- Hemen ez, hamen... Lehen izurdia ikusten huan hamen arrantza klasia majuta deitzen zitxoan orduan, e. Izurdia billatu ta orduan saria bota, uain ez. Uan radarrakin ta zeakin ta arraia ikusiarazi iten diye, baiña lehen izurdia topatu behar izaten huan, arraia ikusi, antxua ikusiko baldin bazan.

- Antxua [...].

- Bai, antxua, zean, izurdiai segika jun, ta izurdia gelditzen zanian, arraia, zea, antxuai [...] botatzen zitzaion, botatzen zitzakon, direkto. Hoiek danak pasa hituan.

- Orduan, izurdien atzetik beti.

- Bai. Izurdiak somatu, ta orduan, ba, honea arrai gehio sartzen huan.

Bueno, oain ez dek honea arraik sartzen.

- Eta izurdian familiyako beste, beste holako...

- Ba, hoixe, "delfín". Hoiek'e klasia dituk. Hor batzuek nola [...] dia parketan ta, zean, batzuek jartzen ditue, zea in ta, ta hoiek danak izurdian familikuak dituk. Bai.

- Ta entzunda daukazu zeria?

- E?

- Zere, zeria, o...

- Zeria baita entzun diyat, baiña ez diat zea, zeria. Ta beste bat nik itsasuan ikusi izandu nuna, hamen, geuri gertatuta... Nola izena zun 'e... Ezpata diye. Arraia hola, e, arraia bere normala. Ta geo, gaiñeko ezpata igual bi metrokua. Hura itsasuan aurkitu zaten neuri, geure onduan.

- Ezpalarta, o...

- Bai, holako zea dik... Ahaztu zatek izena nola dun...

- Ezparloia, o...

- Ezparloia! Ezparloia, bai. Ezparloia. Zea, bi ezparloi ikusita gabeztek gu arrantzan, Mollarriz kanpotikan, nere lagun, nere lagun bat eta ni, ta ezparloiak hamen olatutan.

- Hamen, e...?

- Bai, bai, hamentxe kostan erdiyan.

- Kostan, e?

- Bai, hondartzan erdiyan.

- Eta zeria esan dezu...

- Zeria 're entzun izandu diyat, baiña ez zekiyat nolakua dan o zea dan. Zeria, entzun izandu diyat.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-08-14

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com